

6

sorta Monografikoa



Cikak
aurkezten du

bascoiak



Chipi-traxpa bilduma honekin Hezkuntza Departamentuak eskola-umeei Nafarroa hobeki ezagutzen laguntzeko asmoa hartu du. Aurkikundez betetako bidaia honetan, Cika izanen dugu bidelagun, oso neskatiko berezia, Nafarroako eskola-umeei beren lurra poz-pozez erakutsiko diena, eta haren natura, haren historia, haren hizkuntzak, haren tradizioak eta Nafarroa hain aberatsa eta hain bere gisakoa egiten duen kultur aniztasun osoa.

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea
Hezkuntza kontseilaria

Izenburua: Baskoiak
Egilea: Matías Múgica
Diseinua: Asís Bastida
Inprimaketa: Gráficas Castuera

ISBN: 978-84-235-3025-0
L.G : NA-3.585/2007

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua

Sustatzaile eta banatzailea:
Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fonda
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Navas de Tolosa kalea, 21
Telefona: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
31002 Iruña
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

bascoiak



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

BaskoiaK

aurkibidea

1

06 Gure arbasoak

06 ■ Nor ziren

06 ■ Nola bizi ziren

2

09 BaskoiaK eta haien auzokoak

09 ■ Iberiarrak

11 ■ Zeltak

14 ■ Barduliarrak,
karistiarrak,
akitaniarrak

3

16 BaskoiaK eta erromatarrak

17 ■ Baskoien hiriak

18 ■ BaskoiaK Erromako armadan soldadu

20 ■ Jainkoak

20 ■ Latina eta euskara


22 ■ Jarduerak

23 ■ Penintsula Iberikoko
Erroma-aurreko herriak

24 ■ Glosarioa

26 ■ Antzinateko testuak baskoie
eta haien auzokoen gainean





Gure arbasoak

Nor ziren

Baskoiak Erroma-aurreko herri bat ziren, kristau era hasi aurretsuko eta ondotsuko urteetan gaurko Nafarroaren lurraldea eta inguruko lurren zati bat hartzen zuena.

Nola bizi ziren


Antzinetatik iritsi zaizkigun berrien arabera, badirudi baskoiak, erromatarrek iritsi aurretik ere, ez zirela oso herri homogenea ez kulturaz ez antolamendu politikoz. Erromatarrek bereizkuntza argia egin zuten iparreko eta hegoaldeko baskoien artean. Iparrerekoek *saltus vasconum* delakoa okupatzen zuten (“baskoien oihana”); hegoaldekoak, berriz, *ager vasconum* delakoan bizi ziren (“baskoien alor-lurra”). Bi eremuen arteko muga oso lausoa bada ere, Iruña ezarri ohi da saltus-aren hego muturreko puntutzat.

- Goian
● Okabeko harrespila.
- Behean
● Baskoien lurraldea Antzinaroko geografoen datuen arabera.



Estrabon (K.a. I. mendea) eta Ptolomeo (K.o. II. mendea) geografo grekoek mapan ageri den lurraldea egogten diete baskoiei: gaurko Nafarroa, Gipuzkoako zatitxo bat Kantauri itsasoraino; Berdungo kanal osoa Jacaraino; Errioxako zati bat Alfaroraino, eta gaurko Zaragozaren parte bat Alagoneraino.

Aipagarria da ez Estrabon ez Ptolomeo ez zirela sekulan izan penintsula iberikoan, eta aurreragoko iturri idatziak erabili zituztela edo Hispania zuzenean ezagutzen zuten pertsonen lekukotasuna.



● **Peninsula Iberikoaren eta Europaren interpretazio grafikoa, Estrabonek ikusten zituen moduan.**

Iturria: *Atlas histórico de España y Portugal*, Síntesis, 1999. Julio López-Davalillo Larrea.

Ohartu geografo grekoak uste zuela Pirinioa eta Ebro ibaia iparretik hegora zihozazela.

● **Brontzezko torkea. Nafarroako Museoa.**

Saltus-eko baskoia Brontze Aroko bizimoduak atxikita bizi ziren: herrixketan bizi ziren iraupenezko abeltzaintza bizibide zutelara, eta bai harpeetan eta beroki naturaletan ere. Gutxi erromatartu ziren. Nahiz eta inbasore uhin bat baino gehiago haien lurraldean barrena pasatu (zeltak esate baterako) eta neurri batean bertan ezarri ere, ez dirudi saltus-eko baskoiek gogoan hartzeko moduko jende ekarpena hartu zutenik, haien kulturari nabarmen eragiteko moduan.

Ager-eko baskoia, berriz, nekazariak ziren eta hirietan bizi ziren, nolabaiteko antolamendu politikoa zutelara; salerosketan aritzen ziren eta Erroma iritsi aurretik ere zelten eta iberoen kultur eragin handia hartua zuten. Ondorioz Burdin Aroko kultura zuten eta zelta eta iberiar hizkuntzak erabiltzen zituzten, beren jatorrizko hizkuntzaren ordez edo harez gain, ez dakigu. Baskoi hauek iparrekokoak baino aise errazago eta gehiago erromatartu ziren.

Hala ere, kanpoko eraginak oso neurri banatan jaso bazituzten ere, baskoiek ezaugarri komun batzuk izanzen zituzten noski, nolabaiteko talde kontzientzia eta batasuna ematen zietenak, nahiz eta beren antolamendua oso laxoa izan.

Egia esan, ezer gutxi dakigu baskoien azturez eta bizimoldeaz. Estrabonen testu famatu bat hartu ohi da ahotan (Geografia, III, 3, 7), zeinean geografoak, Kantauri bazterreko herriak deskribatzen ari dela, esaten baitu herri horiek guztiek, galaikoek, asturiarrek eta kantabriarrek “Baskoietaraino eta Pirinioraino” (*mékhrī ouaskónon kai tês Pyrénēs*) bizimodu bat bera izaten zutela. Kontua da esapide hori nahasgarri samarra dela, ulertu baitaiteke *baskoietaraino* esatean ez duela herri hori sartzeko deskripzioan eta, bestetik, aurkezten digun koadroa erromatarrek basa-herriei egozten zizkieten topikoez kargatu xamarra agertzen baita.



“Menditar hauek denak urri bizi dira, oso: ura besterik ez dute edaten, ilea lotu gabe daramate, luze, emakumeek bezala, nahiz eta, borrokarako, bekokian zinta batez lotzen duten. Gehienbat ahunzkia jaten dute eta akerrak sakrifikatzen dizkiote Ares jainkoari, eta bai presonerrak eta zaldiak ere batzuetan. [...]. Lehiaketak ere egiten dituzte soldadu arinentzat, hoplitentzat eta zaldizkoentzat, eta haieran ukabil-borrokan, txabalinan eta formazioko borrokan aritzen. Urtearen bi herenetan ezkurra beste mantenerik ez dute izaten, eta hartarako ezkurrak idortzen utzi, eho, eta irin horrekin ogi bat egiten dute luzaro kontserbatzen dena. Zerbeza edaten dute, baina ardoa, berriz, eskas izaten dute eta lortzen duten apurra berehala edaten dute ahaide arteko oturuntzetan. Olioaren ordeztur gurina erabiltzen dute. Eserita jaten dute, gelaren pareta osoan egoten den harrizko jarleku batean, eta han adinaren eta mailaren araberrako hurrenkeran esertzen dira. Jatekoa eskuz esku pasatzen dute eta, edaten hasita, gizonak dantza egiten dute flauta eta tronpeta soinua lagun, noiz koroak eginaz eta noiz gora salto egin eta belauniko eroriz.

Bastetanian emakumeek ere parte hartzen dute gizonekin dantza horietan. Gizonak beltzez jantzita egoten dira, artilezko mantu zakarrekin. Burusitako ere erabiltzen dituzte mantuok, lastoaren gainean lo egiteko. Zeltek bezala, hauek ere lurrezko ontziak erabiltzen dituzte. Emakumeek, berriz, beroki eta zaia koloretsuak eramaten dituzte beti. Diruaren ordeztur, eskualde erretiratuenetan bizi direnek behintzat, trukea erabiltzen dute edo bestela zilarrezko xaflatxo batzuk. Hiltzera kondentatuak malkor batetik beheiti amiltzen dituzte eta parrizidak harrikatzen, baina beti ere mendietatik eta ibaietatik urrutit. Ezkontzak grekoen antzekoak dituzte. Eriak kalean etzanda edukitzen dituzte, Antzinako egipziarrek egiten zuten bezala, bidaztiren batek eritasunari antz eman eta erremedioa esango ote dien esperantzan.

[...]

Horrela bizi dira herri menditarrak, hau da, Iberiaren iparraldeko kostan bizi direnak: ka-laikoak, astureak eta kantabroak, Baskoietarino eta Pirinioraino, denek bizimodu bat bera izaten baitute.”

Estrabon, *Geografia*, III, 3, 7

Baskoien izena

*Ez dakigu zer izen ematen zioten baskoiek beren buruari. Gugana iritsi den izena grekoek eta erromatarrek ematen ziotena da, zeltek eman ziotena bera. Baskoi lurraldean egiten ziren diruetan **BARSCUNES** edo **BASCUNES** izena ageri da, etimologia zelta garbia omen duen izena (“menditarrak” edo horrelako zerbait). Izen hori ezpata motz bat, eskutokirik gabea, daraman zaldizko baten azpian ageri da. Beste aldean giza buru bat ageri da, eskuinera begira; haren ondoan batzuetan izurde bat edo golde bat ere azaltzen da. K.a. 150-50 urteen bitartekoak dira denak.*



- Baskoien moneta. Nafarroako Museoa.



2.

- Iberiarren eta zelten banaera Hispanian.



Baskoiak eta haien auzokoak

Erroma Penintsulan azaldu aurretsuko mendean, baskoiek orduko Hispanian nagusi ziren bi herri handien eragina hartua zuten: **iberiarrak** eta **zeltak**.

Iberiarrak

Iberiarrak Mediterraneoko kosta osoan bizi ziren, Penintsula Iberikoan eta bai gorago ere, kontinentean, Hérault ibairaino, Marseilla ondoan. Kultura aurreratuko herria ziren eta beren idazkera propioa zuten: signario iberikoa hain zuten. Idazkera hori Penintsula gehientsuenean zabaldu zen: zeltek ere erabili zuten beren hizkuntza idazteko eta bai baskoiek ere beren monedetako testuetan.

Behean

- **Baskoiak eta haien auzokoak.**

Iturria: *Los pueblos del Norte*, Julio Caro Baroja (moldatua).





a	𐌀
e	𐌁
i	𐌂
o	𐌃
u	𐌄
l	𐌅
m'	𐌆
m	𐌇
n	𐌈
r	𐌉
r'	𐌊 𐌋
s	𐌌
s'	𐌍
ba/pa	𐌎
be /pe	𐌏
bi/pi	𐌐
bo/po	𐌑
bu/pu	𐌒
ga/ka	𐌓
ge/ke	𐌔
gi/id	𐌕
go/ko	𐌖
gu/ku	𐌗
da/ta	𐌘
de/te	𐌙
di/ti	𐌚
do/to	𐌛
du/tu	𐌜


Iberiera

Iberieraz idatzitako testu asko iritsi zaizkigu, K.a. IV eta I. mende bitarteko inskripzio eta monedetan. Testu horiek irakurtzen ahal dira, badakigulako zeinuek zer balio duten; ez dira, ordea, ulertzen, hizkuntza deszifratu gabe baitago. Idazkera iberikoa teknikoki erdi-silabarioa da: zeinu alfabetikoak ditu, batetik, bokaletarako eta zenbait kontsonantetarako; kontsonante herskasrietarako, berriz, silabogramak ditu, hau da, Kontsonante + bokal taldeak irudikatzen dituzten zeinuak (ba, be, bi, bo, bu eta abar). Inskripzio multzo txiki bat, bestalde, iberieraz baina alfabeto latinoan edo grekoan idatzita daude. Euskara delarik Penintsulan gelditu den Erromaurreko hizkuntza bakarra, askok pentsatu zuten iberiera euskararen forma zahar bat ote zen eta euskararen bidez saiatu ziren interpretatzen. Gaur, oro har, inor gutxi uste du euskara eta iberiera hizkuntza bera direla, euskarak ez baitu balio izan iberiera interpretatzeko, baina denek aitortzen dute iberieraren eta protoeuskara berreraikiaren artean kointzidentzia aipagarriak daudela tipologian (eranskariak dira) eta fonemen inbentario zein banaeran. Kointzidentzia horiek histori-aurreko kontakto luze baten ondorio izan daitezke.

Iberoei eragin handia izan zuten baskoien gainean, hizkuntza zein kulturaz. Eragin hori gehienbat lurraldearen ekialdean gertatu zen, hor baskoiak zuzenean tribu iberiarrekin mugakide baitziren (ilergeteak). Hemen, ekialdean, Xabier, Zangoza eta inguruko lurretan, jende-izen iberiko ugari azaldu dira latinezko inskripzioetan, hala nola *Turibas*, *Titabas*, *Gurtaanbas*, *Geseladin*, *Turciradin*, eta abar. Horrek, itxura batera, iberieraren presentzia salatzen du. Baina barrenalderago ere kultura eta hizkuntza iberikoaren aztarnak aurkitu dira. Iberieraz idatzitako brontze xafra batzuk, adibidez, Aranguren ibarrean, Iruña ondoan, eta batez ere Andelosko hiri erromatarrean (Muruzabal Andion), non idazkera eta hizkuntza iberiarreko testu bat baitago etxe erromatar bateko mosaikoan (ikus 10. orr.). Horrek ez du nahitaez esan nahi Andelosko hizkuntza

edo hizkuntzetako bat iberiera zenik, baina bai agertzen du iberierazko hiztunen presentzia eta eragina baskoi lurraldearen erdi-erdian. Ascoli-ko brontzean (ikus 19. orrialdean), bestalde, soldadu baskoiek, Segiako hiritik datozenak, iberiera hutseko izenak dituzte denek.





Andelosko etxe erromatar bateko zola mosaiko batez estalita dago, eta bertan, iberierazko testu bat dago teselaz idatzia (teselak mosaikoa marrazteko erabiltzen diren harri edo zeramikazko pusketak dira). Testuak honela dio: LIKINE ABULORAUNE EKIEIN BILBILIARS, eta iberiera deszifratu gabe badago ere, ikertzaile gehienak bat datoz hitz horiek "Likinok eta Abulok egin zutela, Bilbilistarrek", edo antzeko zerbait, hau da, testua mosaikogileen sinadura dela, itxura batera iberiarrak baitziren, Bilbiliskoak, hain zuzen (Calatayud).

Goian

- **Andelosko mosaikoa.**
Nafarroako Museoa.

Eskuinean

- **Andelosko uharkaren maketa.**
Nafarroako Museoa.



Goian

- **Andelos airetik ikusita, eta etxe baten detailea, impluvium eta guzti.**

Zeltak

Zeltak, jatorriz, Europa Erdialdeko herri bat dira, Kristoren aurreko bigarren milurtekoan Atlantiko aldera mugitzen hasi eta Europa Sartaldean zabaldu zena. Haietako batzuk K. a. lehenbiziko milurtekoaren hasieran Pirinioak gainditu eta penintsularen parte handi bat okupatu zuten, batez ere Ebro ibaiaren erdialdeko ibarra, non baskoiekiko ezagutza egin zuten. Ebro ibarreko zeltak (beroiek) zuzeneko eragina izan zuten Nafarroako mendebaldean: sakonki zeltizatu zituzten Estellerriko Erribera eta Arabarekin muga egiten duen eskualdea. Eremu horretan jende-izen zeltak erabat nagusi dira inskripzioetan: *Anbatus*, *Araca*, *Boutia*, *Buturrus*, *Segontius*, *Viriatus*, eta abar, eta arkeologiak ere Burdin Aroko herrien kontzentrazio handia salatzen du hor, kultura zelta garbikoak.

Arkeologiako datuek erakusten ere dute Ebro ibarreko lurralde erromatarren etorri baino lehenagotik erabat zeltizatuta zudela.

Iparralderagoko Nafarroan, ordea, zeltak beren emigrazioan nahitaez lurralde horretan barrena pasatu baziren ere eta zelta jatorri garbiko toki-izenak oso iparreraino aurkitzen badira ere

(*Ultzama*, estaerako), ez dirudi jende ekarpena handia izan zenik eta zelten kulturak ez zuen bertakoa lekutu.

Ultzama

Ultzama haranaren izena zelta jatorri garbikoa da, gauza harrigarria, hain iparraldean dagoelarik, baskoien saltus bete-betean, hau da, kanpoko eraginik gutxien hartu zuen eskualdean. *Uxama*, zelten hizkuntzan "garai, gora" esan nahi duen hitzaren superlatiboa da, hau da, "goiena, gorena" esan nahi du (Konparatu, adibidez, *Ergoiena* bezalako toki izen bat). Beste herri eta toki askok hartu dute *Uxama* izen zelta hori. Ezagunenaren artean Burgo de Osma dugu, jatorri berekoa (*Osma* < *Uxama*).

Hala ere, inskripzio gehiago azaleratzen diren neurrian, baskoi itxurako jende izenak ugariagotzen dira, hala nola *Abisunhar*, *Abisunsonis*, *Beltesonis*, *Dusanharis*, *Narunseni*, *Narhungesi* eta abar, nahiz eta oso gutxi diren. Gogoan hartu behar da, gainera, izen zelta edo iberoa izateak ez duela nahitaez esan nahi eramalea hizkuntza horretakoa zenik, baizik eta soilik kultura horien eragina hartua zuela. Pertsona izenak, izan ere, moden eta kanpoko eraginaren oso mende egoten dira eta eragin horiek askotan azal-azalekoak izaki. Ildo horretatik, Joaquin Gorrochateguik aditzera ematen du Erromaren denborako inskripzioetan maiz gertatzen dela zelta izena duen norbaitek hilarri bat eskaintzea jainko indigena (hau da, baskoi) bati, hala nola *Larrahi*, *Selatse*, *Itsascurrin*, eta abar; horrek iradokitzen du izena gora behera eskaintzaile hura indigena izan zitekeela (baskoia).

Hortaz, zail da ongi zehazten zenbaterainokoa izan zen zelta eta iberoen eragina baskoien lurraldean, nahiz dudarik gabe oso handia izan zen. Gorrochateguik berak esaten duen moduan "antzinako Nafarroa, itxura batera, eleanitza zen, euskara erabat nagusi zela iparraldeko eta mendialdeko eremuetan, eta beste bi hizkuntzak gehiago ageri zirela bakoitzaren eremu nuklearretar hurbiltzen garen neurrian."

Behean eta eskuineko orrialdean

- **La Custodia (Viana)ko aztarnategian aurkitutako bi tesera zoomorfoen aurrealdea eta atzealdea. Nafarroako Museoa.**





Arroztasun teserak

Zelta tribuen ohituretan, oso tipikoa da arrotz-itunak egitea, bi tribu, bi hiri, bi pertsona edo pertsona eta hiri baten eta abarren artean. Itun horiek eskubidea ematen zioten itunkideari bere lurraz kanpo zegoela geriza eta ostatua hartzeko. Itunaren seinaleetako, arroztasun teserak egiten ziren. Elkarrekin bat egiten duten bi partez osatu objektuak izaten ziren. Itunkide bakoitzak parte bat beretzat gelditzen zuen eta bere lurraldetik ateratzen zenean berekin eramaten. Beste zatiarekin bat egiten zuela konprobatu eta horrek ostatu hartzeko eskubidea ematen zion.

Tesera zaharrenak bi puska egindako teilak izan gitezkeen baina, maizago, brontze irudiak izaten ziren, asko animalia baten itxurakoak (hartzaren, basurdearen, zaldiaren formakoak eta abar), nahiz eta forma abstraktukoak edo bi eskuren formakoak ere badiren. Itunkidearen izena grabatuta edukitzen dute gainean eta batzuetan kortika karuo esaldia ere bai, horrela deitzen baitzitzaizen zelten hizkuntzan tesera hauei.

Nafarroan hainbat tesera halako aurkitu dira, zeltazko inskripzioekin, La Custodiako (Viana) aztarnategian. Nafarroako mendebaldea sakonki zeltizatua zegoelako seinale dira.





- **Tesera elkartuaren alegiazko irudikapena, galdutako erdia berreginez.**

Eskuineko orrialdean

- **Andelosko mosaikoaren detaillea.**



■ Barduliarrak, karistiarrak, akitaniarrak

Ikusi dugu baskoien parte batek hizkuntza zelta bat hitz egiten zuela erromatarrak etorri aurretik ere. Adostasun handi xamarra ere badago baskoien jatorrizko hizkuntza, hau da, euskararen forma zahar bat, ez zutela haiek soilik mintzatzen. Koldo Mitxelenak dioen bezala: “Ez baskoi guztiak euskaldunak ziren, ez euskaldun guztiak baskoiak ziren”. Izan ere, baskoien inguruan eta haien lurraldea zuzenean jotzen zutela, beste herri batzuk bizi ziren, haiekin harreman estuan egon eta hizkuntza bera mintzatzen bide zutenak.

Mendebaldean, **barduliarrak** eta **karistiarrak** zeuden, segur aski hizkuntza bera, euskararen forma zahar bat, mintzatzen zutenak, nahiz eta zenbaitek uste duten, pisuzko arrazoiekin, herri horiek antzinaroan hizkuntzaz indoeuroparrak zirela eta gaurko euskara Erdi Aroan sartu zela hor, Nafarroatik.

Iparraldean, Pirinioaz bestalde, **akitaniarrak** zeuden, Erroma-aurreko beste herri bat, Piriniotik Garona ibaira bitarteko lurra okupatzen zutenak. Cesarrek (*De bello Gallico*) espreski esaten du akitaniarrak ez zirela zeltak eta Estrabonek, bestetik, esaten du hizkuntzaz eta itxuraz iberoeekin antza gehiago zutela galoekin baino (Estrabonek hemen *ibero* esaten duenean segur aski zentzu geografikoan erabiltzen du hitza, hau da, Penintsularen biztanlea, eta ez zentzu etniko hertsian). Akitanoek, inolako dudarik gabe, gaurko euskararen ahaide zen hizkuntza bat mintzatzen zuten, haien jainko- eta jende-izenak, hamaika inskripzioetan ageri direnak, garbiki euskarazkoak baitira. Akitaniako jainko-izen eta jende-izen euskarazkoak dituzten inskripzioak Garona ibaiaren burualdeko ezker bazterrean kontzentratuta daude –Aran ibarrean ere aurkitu da bat–. Eskas dira, berriz, gaurko ipar Euskal Herrian. *Senbeco*, *Senius*, *Cison* bezalako gizon izenak ageri dira, eta *Andere*, *Nescato*, eta abar bezalako emakume izenak, gaurko euskal hitzekin zehazki bat egiten dutenak (*seme*, **seni* “haurra”, *gizon*, *andere*, *neskato*).





Ezkerrean

- **Pompelo Handiaren burua.**
Ny Carlsberg Glyptothek,
Copenhagen.

Eskuineko orrialdean, goian

- **Ebro ibarreko erromatar bide nagusiak.**
(N. Duprétik moldatua)

Eskuineko orrialdeko argazkia

- **Miliarrri erromatarra.**

Baskoiak eta erromatarrak

Baskoiek Ebroko ibarrean izan zituzten lehenbiziko kontaktoak erromatarrekin, K.a. II. mendean. K.a. 179. urtean Gracok *Gracuris* fundatu zuen baskoien lurretan (gaur Alfaro, Errioxan). Oro har, erromatarren eta baskoien arteko harremanak adiskidantzazkoak izan ziren, antza. K.a. 89. urtean, adibidez, Cneo Pompeio Estrabonek Erromako herritartasuna erauki zien –pribilejio handia,

Zaragoza ondoan osteratutako zaldizko eskadroi indigena bati, (*Turma salluitana*), zeinean baskoi batzuk ere bazeuden. Handik gutxira haren seme Pompeio Handia baskoien artean gerizatu zen K.a. 75-74ko negua emateko, Sertorioren kontrako gerran ari zela. Baskoi herri baten ondoan kanpamentua ezarri eta han hiri bat fundatu zuen, izenez *Pompaelo*.

Iruñaren izena

“Gazetania pasatuta, ipar aldera, baskoien tribua dago, non Pompelon izeneko hiri bat dagoen, esan nahi baita *Ponpeiopolis*”

(Estrabón, Geografía, III, 4, 10)

Iruña, esan bezala, Pompeio Handiak fundatu zuen K.a. 75-74ko neguan. *Pompaelo* eman zion izena, grekeraz *Pompáilon*. Estrabonek dio izen horrek “*Ponpeiopolis*” esan nahi duela, hau da, “Ponpeioren hiria”:

Izenaren lehen osagaia, bada, jeneral erromatarraren izena da; bigarren osagaia, *ilon* (Estrabonen arabera *pólis*-en baliokidea), segur aski *Ilun* da, “hiria” esan nahi zuen antzinako euskal hitza, gaurko *Irun* hiriaren edo *Irunberri* herriaren (bestorduz *Ilunberri*) izenetan ageri dena.

Iruña, bada, *Ilun* edo *Irun* horren forma bilakatua da eta besterik gabe hiria esan nahi du. Erdarazko izenak, *Pamplonak*, berriz, “Ponpeioren hiria” esan nahi du jatorriz. Bi izenek, beraz, hain itxura banakoak badira ere, jatorri bera dute.

Iruña erromatarra

Azalera: 12 hektarea, Erdi Aroan Nabarrieriak zuen bezalatsuko tamaina.

-  Erromatar hiriaren mugapea
-  **Macellum** (merkatua)
-  **Decumanus maximus**
-  **Cardus maximus** (kale nagusia)
-  Erroma-aurreko herriaren eremua
-  Erromatar hiriaren aldiria izan litekeena
-  Argarainoko sakantxoa
-  Sarrera nagusiak

Iturria. M.^o Ángeles Mezquiriz, “Claves del urbanismo romano en el territorio de Navarra”. *Complutum* extra, 6(1) 1996 (moldatua)



Baskoien hiriak

Pompaelo, erromatarrek fundatua, baskoien hiririk larriena izan zen. Antolamenduz eta bizimoldez, antza, Inperioko hiri guztien antzekoa zen. Horregatik, gainerako baskoiak erromatartzeko akuilagarri handia izan zen. Estrategikoki kokatua zegoen Astorgatik Bordelerainoko galtzada handiaren eta Tarragonatik Kantaurinoko galtzada txikiagoaren gurutzagunean.

Beste baskoi hiri erromatartu batzuk izan ziren *Andelos* (gaurko Muruzabal Andiongo mugapean), *Gracurris* (gaur Alfaro), *Calagurris* (Calahorra), *Cascantum* (Cascante), *Cara* (Santacara) eta *Oiarso* (Oartzun/Irun).

Hiriok saleroste-gune ziren eta nekazarietarako hornitoki ere bai. Kaleak, merkatuak, bainu publikoak, tenpluak, zubiak eta akueduktuak izaten zituzten eta bai sistema hidrauliko korapilatsuak ere (Andelosen aurkitu dena, kasu). Hiriak elkarrekin lotzeko, komunikabide sare bat izaten zuten. Bide haiei esker salerostea egiten zen inguruko eskualdeekin eta bai urrutiagokoekin ere.





Ezkerrean eta eskuinean

● **Ascoliko brontzea**

Museo capitolino, Erroma.

Diploma kolektiboa da. Haren bidez, Cneo Pompeio jeneralak Erromako herritartasuna eman zion Hispaniako mertzenario sail bati, haien artean batzuk baskoiak. K.a. 89. urtekoa da.

■ Baskoiak Erromako armadan soldadu

Erromatarrek baskoiekin zituzten harreman onen erakusgarri, baskoi asko Erromako armadan soldadu sartu ziren, armada profesionala baitzen, hau da, mertzenarioz osatua. Arestian esan bezala, K.a. 89. urtean Cneo Pompeiok Erromako herritartasuna eman zion zaldizko indigenen eskadroi bati. Gero, ongi testigatuta dago *Cohors II Vasconum* bat (Baskoien II. Kohortea) aurrena Germanian destinatuta zegoela eta gero segur aski Trajanok Britaniara eraman zuela Hadrianoren denboran oraindik hor agertzen baita. Kohorte hau bera, antza, Afrikako iparraldera mugitu zen (Mauritania Tingitana), horko inskripzioek ere soldadu baskoiak aipatzen baitituzte. Baliteke I numeralarekiko

beste baskoi kohorte bat ere izana, baina ez dakigu batere haren berri.

Erromako armadan soldadu joateko ohitura ere erromanizazio faktore handia izan zen eta asko bultzatuko zuen Erromako hizkuntza eta azturak baskoien artean zabaltzea.

-ain bukaerako herri izenak

Iruñi ondoko eremu zabal batean ugari dira -ain bukaera duten herri izenak, eta bai -ano bukaerakoak ere (ikus mapa). Badirudi herriok jatorriz etxaldeak edo nekazaritza esplotazioak izan zirela eta lehenbiziko jabearen izena daramatela. Izen hori gehienetan erromatarra zen: Markalain, *Marcellus-etik*; Imarkoain, *Marcus-etik*; Amalain eta Amillao, *Aemilius-etik*; Gendulain *Centullus-etik*; Gerendain, *Terentius-etik*; Barbatain, *Barbatus-etik*; Burutain, *Brutus-etik*; Undiano, *Pontianus-etik*; Gindano, *Quintanus-etik*. Baina batzuetan izena indigena da: Urdiain, *Urde-tik*; Zuriain, *Zuri-tik*; Beasoain, *Bearzu-tik*, Belaskoain, *Belasko-tik*, eta abar.

Kristau erako lehen urteetan hainbeste etxalde jabe izen latinoak izatea erromanizazio erakusbide handia da, egia, baina beste alde batetik oinarri latinoko izen hauen bilakaera fonetikoa euskara hutsekoa da, hau da, euskararen lege fonetikoaren arabera eraldatu dira gaurko forma hartu arte. Beraz, toki izen hauek alde batetik erromanizazio handia adierazten dute eta, bestetik, euskararen iraupen sendoa ere bai.

[C] N POMPEIVS SEX.[F. IMPERATOR] VIRTVTIS CAVSSA

EQVITES HISPANOS CEIVES [ROMANOS FECIT IN CAST] REIS APVD ASCVLVM A. D. XIV K. DEC

TVRMA SALLVITANA

SEGIENSIS
SOSINADEM SOSINASAE F.
SOSIMILVS SOSINASAE F.
VRGIDAR LVSPANAR F.
GVRTARNO BIVRNO F.
ELANDVS ENNEGES F.

AGIRNES BENNABELS F.
NALBEADEN AGERDO F.
ARRANES ARBISCAR F.
VMARGIBAS LVSPANGVB(AS) F.


“Cneo Pompeio enperadoreak, Sextoren semeak, Erromako herritartasuna eman zien, beren adoreaen saritan, Hispaniako zaldizkoei, Ascoli ondoko kanpamentuan, Abenduko kalendak baino 14 egun lehenago.”

“Segiatarrak: Sosinaden, Sosinaseren semea; Sosimilo, Sosinaseren semea; Urgidar, Lusparren semea; Gurtano, hijo de Biurnoren semea; Nalbeaden, Agerdoren semea; Arranes, Arbiscarren semea; Umargibas, Luspangibasen semea.”

“SALDUIEKO ESKADROIA”

Izena halakoa dute Salduien osteratu zirelako soldaduok, Ebro ibaiaren bazterreko hiri iberikoa (gaurko Zaragoza). Inguruko herrietakoak dira soldaduok, eta herri horietako bat baskoiena izaki: Segia. Saldue oso toki egokia zen tropak osteratzeko zeren Ebro ibaia orduan Logroñoraino nabigatzeko moduan baitzegoen, eta horregatik oso erraza zen tropak urez Mediterraneoara atera eta Italiara eramatea, han borroka egin behar baitzuten Gerra Sozialean.

Soldaduok Segiakoak dira (Ejea de los Caballeros). Izenak, ordea, iberierazkoak dituzte denek. Horrek iradokitzen du zenbatekoa zen Baskoi lurraldeko aniztasun etnikoa eta linguistikoa.



Fuente: Los vascones, M.^a Jesús Perex Agorreta.

Behean

● Uxeko hilarriak

Uxuen aurkitu ziren hilarri bizki hauek erakusten dute nola laketu zuten elkarrekin Nafarroan Erromako erlijio inperialak eta bertako jainko-jainkosek: pertsona berek lehenbiziko hilarria Jupiterri eskaintzen diote eta bigarrena, berriz, Lakubegiri, baskoien jainko bat, agian uretako izpiritu bat.



■ Jainko-jainkosak

Beste alderdi batean ere eragin handia izan zuten erromatarrek baskoien gainean: erlijioa. Erromatarrekiko kontaktoan, baskoi erromatar-tuek Erromako jainkoak beretu zituzten, gaine-rako inperio osoan gertatu zen bezala: Jupiter, Minerva, Marte, Mercurio, Juno, eta abar gurtu zituzten, nahiz, askotan beren jainko lehenagokoak utzi gabe: Erromaren garaiko inskripzioetan baskoi jainko eta jainkosen izen asko ageri dira, hala nola *Errensae* (Andion), *Itsascurrinne* (Izkue), *Larrahi* (Mendigorria), *Losae* (Zirauki) edo *Selatse* (Barbarin).



K.o. III. mendetik aurrera hasi zen kristautasuna baskoien artean zabaltzen. Tradizioak, oinarri historikorik gabe, esaten duenez, San Saturnino Toulouseko apezpikuak ebanjelioa predikatu zuen baskoien artean eta San Fermin kristautu.

III. mendearen bukaera aldera, kristautasuna aski zabaldua egongo zen Nafarroan, batez ere hegoaldean, nahiz eta lehengo sinismen indigenek segur aski mendeak iraungo zuten erabat itzaltzen.

■ Latina eta euskara

Erromatarren sei mendeko presentziak, hizkuntza eta kultura berria ez ezik, erlijio berria ere ekarri zien baskoiei, pentsaera eta bizimodua errotik aldatu zizkiena: kristautasuna. Baskoien goiko klaseek latina ikasi zuten eta hizkuntza hori mintzatu eta idatzi zen baskoi lurraldeko hiri erromatarretan: Pompaelo, Andelos, Graccurrus, Cascantum eta abar. Nafarroako hegoaldean eta hego-mendebalean, non, esan bezala, erromatarren konkista baino lehenagotik hizkuntza zeltak

hitzegiten ziren, hizkuntza horiek desagertu ziren eta erromanizazioa erabatekoa izan zen. Gauza bera gertatu zen Zangozako lurraldean ere (Zangoza, Ledea, Yesa, Xabier, Peña), nahiz hemen erromanizazioa, aidanez, beranduxeagokoa izan zen (V. m.). Gainerako lurraldean, latina hirietan sartu bazen ere, eutsi zitzaion, non gehiago non gutxiago, lehengo hizkuntzari, nahiz eta latinaren eragin handia hartuta, latinezko kultura bertakoa baino askoz garatuagoa baitzen.

*Euskarak, ondorioz, ehunka hitz baditu latinetik mailegatuak Erromarekiko kontaktoaren lehenbiziko mendeetan. Horietako asko oso zaharrak dira hizkuntzan: bake bezalako hitzak, esaterako (latinezko *pacem* akusatibotik), latinaren ebakiera arkaiko bat islatzen dute (ce taldea herskari gisa ahoskatuta) eta ebakiera hori ez daiteke izan K.o. I. mendea baino beranduagokoa, eta gauza bera gertatzen da *neke* (<*ne-cem*, 'sarraskia') edo *merke*, (<*mer-cem*, *merx* hitzaren akusatiboa); *lege* (<*legem*); *errege* (<*regem*); *erregina* (<*reginam*) eta abar.*

Erromatarrek ekarri ziguten latinetik Nafarroako erromantzea sortu zen, aragoieraren antzeko hizkuntza erromanikoa, gaztelanatik ere asko aldentzen ez dena. Agiriak idazteko latina ugten hasi zenean, erromantze horrek hartu zion lekua, euskarak ez baitzuen inolako tradizio idatzirik. Urteak pasatu ahala Nafarroako erromantzea gaztelanarekin gero eta berdinatzen zen eta XV. mendearen bukaeran erabat berdindu zen harekin.



jarbuerak

- 1** Bila ezazu informazioa eskolako liburutegian, liburuetan nahiz Interneten, 9. orrialdeko mapan ageri diren herrien bizimoduaren gainean.
- 2** Egin ezazu idazlan bat baskoien denborako hiri erromatarren gainean.
- 3** Egin bisita bat Nafarroako Museora bertan ikusteko zer aztarna material iritsi zaizkigun liburu honetan aipatzen diren herriengandik: baskoiak, erromatarrek, zeltak eta iberok.
- 4** Taldean lan eginaz, antola ezazu baskoien eta haien auzokoen gaineko erakusketa bat liburutegian: mapak handitu, mapei esplikazioak erantsi, haien bizimoduaren, hizkuntzaren, kulturaren, auzokoen eraginaren gaineko testuak, eta abar.
- 5** Presta ezazu erakusketa ezagutzera emateko propaganda: gomita-txartelak, edukiaren gaineko diptikoak, erakusketaren iraupena, bisita orduak eta abar.
- 6** Presta ezazu hitzalditxo bat *Baskoiak eta Iruñeko Erreinuaren sorrera* gaiaren gainean, erakusketaren aurkezpenean emateko.



Penintsula Iberikoko Erroma-aurreko herriak

Mapa etnologikoa, 2. gerra punikoaren bukaeran (K.a. 200. urte inguruan)

K.a. 45. urteraino moneda jaulki zuten Erroma-aurreko hiriak, indigenak nahiz kolonialak. Monedetan erabiltako idazkera

- Feniziera-punikoa
- Grekoa
- Levante-aldeko iberiera
- Hegoaldeko iberiera
- Tartesiarra
- Latina
- Beste hiriak

Kolonia nagusiak

- Feniziarrek
- Grekoak
- Kartagoarrak

Hizkuntza taldeak

- Turdetaniarren eremua
- Tartesiarren eremua (hondarrak)
- Zelta
- Iberiera
- Protoeuskara
- Indoeuroparra, zelta-aurrekoa

Kartagoarrak

(K.a. 237-206)

- Kolonizazio eremua
- Militar nagusigoa
- Eragin geopolitikoa

Erromatarren okupazio militarra

- K.a. 194
- K.a. 156

Erromatar probintziak

(K.o. 7tik aurrerakoak)

- BAETICA
- Mugak

GLOSARIOA

Zeltak: Zelta deritza jatorriz Europa Erdialdeko herri bati edo herri multzo bati, Kristoren aurreko bigarren milurtekoan Atlantiko aldera mugitzen hasi eta sartaldeko Europan hedatu zirenak. K.o. I. mendean gaurko Turkiatik hasi harik eta Portugaleraino hedatuta zeuden. Zelta tribu batzuk K.a. lehen milurtekoaren hasieran Pirinioak gurutzatu eta Penintsularen parte handi batean ezarri ziren, batez ere Ebro ibaiaren erdialdeko ibarrean, non baskoien mugakide izan ziren. Ebro ibarreko zelta hauek Beroiak zuten izena.

Zelten ezaugarri nagusia familia bereko hizkuntzak mintzatzea da: zelta familia, hizkuntza indoeuroparren adar bat baita.

Erromako herritartasuna: Erromako herritartasuna, jatorriz, Erromako biztanleei zegokien solik, baina hori horrek hedakuntza imperial handia egin zuenean, zuzenbidezko estatus berezia bihurtu zen, eta inperioaren barrenean gizabanako batzuk edo talde batzuk (hiriak) herritar izan eta beste batzuk, berriz, ez. Herritar izatea oso estatus preziatua zen, abantaila eta pribilegio asko baitzekartzen berekin. Caracalla enperadoreak 212. urtean inperioko biztanle libre guztiei erauki zien herritartasuna. Erromako herritarrak hainbat eskubide politiko bazituen, hala nola boto ematekoa, kargudun publikoa izatekoa, sazerdotea izatekoa eta abar, eta bai hainbat eskubide zibil ere, hala nola jabetasuna (ondasunak, erosi, saldu, jaraunsi eta abar); ezkontza, auzitara jotzeko eskubidea eta abar. Eginbideak ere bazituen, bestalde: erroldan inskribatzea eta armadan soldadu izatea, nahiz eta azken obligazio hori laster desagertu zen, Erromako armada soldatapeko soldaduak hartzen hasi baitzen, askotan herritar ez zirenak. K.a. 167. urtera arte herritarrak zergak pagatu behar zituen, baina data hartatik aurrera herritar izateak zergez salbuetsita egotea esan nahi zuen.

Era: Gertaera gogoangarri bat abiaburu hartuta kontatzen den denbora aldia, gertaerak denboran kokatzeko erabiltzen dena. Era ezagunena Kristau Era da, Kristo jaioz geroztik kontatzen dena, baina beste asko badira: erromatarrek,

kasu, Erroma fundatu zenetik kontatzen zuten denbora (K.o. 753). Musulmanek Hegirako era erabiltzen dute: denbora kontaturik Mahoma profetak Meka hiritik ihes egin zuen urtetik (K.o. 622) eta beste herri batzuek beste era batzuk erabili izan dituzte.

Estrabon: K. a. I. mendeko geografo grekoa, Asia Minorren jaioa. Bldaiari handia izan zen eta orduan ezagutzen zen munduko lurralde geohientsuenak korritu zituen. *Geographiká* (*Geografia*) deitu liburuan, bisitatu zituen herriak eta bertakoen bizimoduak xehero deskribatu zituen. *Geografiaren* III. liburua Iberiaz ari da (Penintsula iberikoa) eta bertan behin eta berriaz aipatzen ditu baskoiak. Estrabon, hala ere, Hispanian behin ere izandu gabea zen eta bigarren eskuko berriak kontatzen ditu, lehenagoko geografoengandik eta penintsula ongi ezagutzen zuten bigaiariengandik ikasiak.

Iberoak: Zeltan eta erromatarrek etorri aurretik Penintsula iberikoa eta Frantziaren hegoaldea hartzen zuten herriak (ikus hedadura 28. orrialdeko mapan). Historialari gehienek uste dute honako herri hauek, antzinako testuetan aipatuak sartzen ahal direla iberioetan: turdetanoak, oretanoak, bastetanoak, kontestanoak, edetanoak, ilerkavonak, zesetanoak, laietanoak, indigeteak, lazetanoak, ausetanoak, ilergeteak eta sedetanoak (ikus Erroma-aurreko herrien mapa 28. orrialdean).

Iberoak, antza, aski heterogeneoak ziren beren kultura materialean eta bizimoduetan, baina kulturen, berriz, aski homogeenak; ezaugarri nagusia hizkuntza dute: hizkuntza ez indoeuroparra. Hura idazteko beren idazkera propioa zuten, partez alfabetoa eta partez silabarioa, zein zeinu batzuek fonemak irudikatzen zituzten, gure idazkeran bezala, eta beste batzuek, berriz kontsonante gehi bokal taldeak: *ka*, *ke*, *ki*, eta abar (ikus signario iberikoa eta haien balioak 10. orrialdean). Manuel Gómez Morenok deszifratu zituen zeinu hauen balioak XX. mendean erdialdean, baina hizkuntza bera oraindik argitu gabe dago eta iberierazko testuak, ehunka baitira, inskripzioetan, grafitietan eta diruetako irakurbideetan, irakurtzen ahal dira,

ez ordea ulertzen. Iberiera eta euskara ahaide ote ziren ideia aspaldikoa da, euskara baita penintsulan bizirik iraun duen Erroma-aurreko hizkuntza bakarra. Gaur, oro har, inor gutxi uste du hizkuntza ahaideak direnik, euskarak gutxi balio baitu iberierazko testuak interpretatzeko. Hala ere, aitortzen da bistako kointzidentziak daudela bai tipologian (eranskariak dira) eta fonemen inbetarioan eta banaeran iberieraren eta protoeuskara berreraikiaren artean. Kointzidentzia horiek histori-aurreko kontakto luze baten ondorio izan daitezke.

Beste osagai kulturaleri dagokienez, arte iberikoa da Penintsulan Erromatarrek etorri aurretik antzinatean izan zirenen artean aipagarriena. Eskultura iberiko gehienak santutegi eta nekropolietan aurkitu dira. Ekialde kutsuko gaiak izaten dituzte, iberok mundu horren eragin handia ageri baitute, eta bai eguneroko bizitzakoak ere asko eta batez ere, erlijio gaiak. Piezarik aipagarrien artean, dama izenekoak daude: Eltxeko dama eta Bazako dama. Askotan animalia fantastikoak aurkitzen ditugu irudikatutik, Bazaloteko Bitxa eta gurlariak, animaliak eta abar irudikatzen dituzten brontzezko estatuak.

Ponpeio (K.a. 106-48): Cneo Pompeio, goitizenez *Handia*, Erromatar politikari eta jenerala izan zen. Sertorio Hispanian Erromako agintearen kontra altxatu zenean, Sila diktadoreak aurrena Metelo bidali zuen hura azpiratzera eta geroago Ponpeio. Ponpeio Pirinioak pasatu eta K.a. 76an sartu zen Hispanian. Sertorioren kontrako gerra luzea izan zen, haren indar militarra sendoagoa baitzen jeneral gaztearena baino eta gerrarako talentu handiko gizona baitzen. Gerra honetan, Ponpeio baskoien artera erretiratu zen 75-74ko negua ematera eta errekaiz hornitzera, eta orduan fundatu zuen Pompaeloko hiria (Iruña). 72. urtean Ponpeio Calahorra (Calagurris)ko hiria suntsitu zuen, orduan hiri zeltiberikoa baitzen, nahiz gero baskoiei egotzi zitzairen. Sertorioren kontrako gerra K.a. 71. urtean bukatu zen, Ponpeio gailendurik.

Sertorio (K.a. 122-72): Erromatar politikari eta jenerala. K.a. 83 artean Hispaniara bidali zuten, Ziterior probintziaren pretore. Sila dikta-

doreak kargutik kendu zuenean Sertorio matxinatu zen eta errebelde bihurtu zen. Urtez eta urtez buru egin zion Erromari *Sertorioren gerra* deitukoetan, noiz garaituz, noiz galduz. K.a. 81. urtean, adibidez, Afrikara ihes egin beharren gertatu zen, baina 80. urteko udaberrian atzera Hispanian zen armada berri batekin. Silak, orduan, 79. urtean, erabaki zuen Metelo bidaltzea Penintsulara bi legioren buru, eta handik bi urtera, Cneo Pompeio ere bai, haren laguntzan. Sertorioren gordeleku nagusia Ebro garaiaren eskualdea zen: Calagurris (Calahorra), hiri zeltiberikoa gero baskoiena izanena; Osca (Huesca); eta Ilerda (Lleida), ilergeteen eskualdean, tribu iberikoa. Zeltiberoak Sertorioren aliatuak baziren ere, baskoiak, berriz, badirudi Ponpeio eta Meteloren alde atzera zirela, nahiz eta erabat segurua ez den. Ponpeio Hispaniara iritsi ondoren, Sertorioren gerra nagusitasuna gainbehera hasi zen. 73. urtean Ponpeio Zeltiberiaren parte handi bat konkistatu zuen; hortaz, Sertorio Ebro Garaiko bere gordelekura erretiratu beharrean egon zen. 72. urtean bere inguruko lagunek hil zuten Sertorio.

Ptolomeo (K.o. 85-165): Astronomo, geografo eta matematikari grekoa, Alexandrian (Egipto) bizi eta lan egin zuena. Astronomiaren arloan haren lan nagusia arabieraz *Almagesto* deritzana da (grekerazko titulua, berriz, "Tratatu Handia" da). *Geografia* delako lanean, Ptolomeok alde batera eta xehero errebisatzen ditu mundo greko eta erromatarren ezagupen geografikoak, koordenatu geografikoen sistema oso zehatza erabiliz. Sistema hori mendez eta mendez erabiliko zuten handik aurrerako geografoek. Geografiazko lan honetan Ptolomeok Hispaniako hiriak aipatzen ditu, eta haien artean baskoienak ere bai. Haren ekarpen nagusia kosmologia da, hau da, unibertsoaren modelo bat: Ptolomeoren ustez Lurra mugiezina zen eta Unibertsoaren erdian zegoen, eta Eguzkiak, Ilargiak, planetek eta izarren inguruan jira egiten zioten.

ANTZINATEKO TESTUAK BASKOIEN ETA HAIEN AUZOKOEN GAINEAN

Estrabon, *Geografia*, III, 3, 7:

Menditar hauek denak urri bizi dira, oso: ura besterik ez dute edaten, ilea lotu gabe daramate, luze, emakumeek bezala, nahiz eta, borrokarako, bekokian zinta batez lotzen duten. Gehienbat ahunzkia jaten dute eta akerrak sakrifikatzen dizkiote Ares jainkoari, eta bai presonerrak eta zaldia ere batzuetan. [...]. Lehiaketak ere egiten dituzte soldadu arinentzat, hoplitentzat eta zaldizkoentzat, eta haietan ukabil-borrokan, txabalinan eta formazioko borrokan aritzen. Urtearen bi herenetan ezkurra beste mantenerik ez dute izaten, eta hartarako ezkurak idortzen utzi, eho, eta irin horrekin ogi bat egiten dute luzaro kontserbatzen dena. Zerbeza edaten dute, baina ardoa, berri, eskas izaten dute eta lortzen duten apurra berehala edaten dute ahaide arteko oturuntzetan. Olioaren ordez gurina erabiltzen dute. Eserita jaten dute, gelaren pareta osoan egoten den harrizko jarleku batean, eta han adinaren eta mailaren araberako hurrenkeran esertzen dira. Jatekoa eskuz esku pasatzen dute eta, edaten hasita, gizonak dantza egiten dute flauta eta tronpeta soinua lagun, noiz koroak eginaz eta noiz gora salto egin eta belauniko eroriz. Bastetaniar emakumeek ere parte hartzen dute gizonekin dantza horietan. Gizonak beltzez jantzita egoten dira, artilezko mantu zakarrekin. Burusitako ere erabiltzen dituzte mantuok, lastoaren gainean lo egiteko. Zeltek bezala, hauek ere lurrezko ontziak erabiltzen dituzte. Emakumeek, berriz, beroki eta zaia koloretuak eramaten dituzte beti. Diruaren ordez, eskualde erretiratuenetan bizi direnek behintzat, trukea erabiltzen dute edo bestela zilarrezko xaflatxo batzuk. Hiltzera kondenatuak malkor batetik beheiti amiltzen dituzte eta parrizidak harrikatzen, baina beti ere mendietatik eta ibaietatik urrutit. Ezkontzak grekoenen antzekoak dituzte. Eriak kalean etzanda edukitzen dituzte, Antzinako egipziarrek egiten zuten bezala, bidaztiren batek eritasunari antz eman eta erremedioa esango ote dien esperantzan.

[...]

Horrela bizi dira herri menditarrak, hau da, Iberiaren iparraldeko kostan bizi direnak: kalaikoak, astureak eta kantabroak, Baskoietaraino eta Pirinioraino, denek bizimodu bat bera izaten baitute.

Estrabon, *Geografia*, III, 4, 10:

Eskualde hau herri askok populatzen dute; ezagunena jazetaniarrak dira. Haien lurraldea Pirinioetik hasi eta Ebro ingururainozabaltzen da, Osca eta Ilerda jotzen dituela, ilergeteen hiriak. Bi hiri horietan izan zituen Sertoriok azken batailak Zeltiberiatik lekutu ondoren. Oscan hil zen, Ilerdatik hurbil. Horrez gain, Afranio eta Petreo, Ponpeioren eskuordeak, Zesar dibinoak bentzutu zituen geroago. Ilerdatik Ebroraino 160 estadio daude mendebalde aldera, 460 estadio hegoaldera Tarracoraino, eta 540 estadio Iparrerantz Oscaraino¹. Hiri horietan barrena pasatzen da Tarrakon hasi eta Ozeano bazterreko azken baskoietaraino, Ponpelon eta Oiarson bizi direnetaraino. Bide honek 2.400 estadio egiten ditu osotara eta zuzen-zuzen Akitania eta Iberiaren arteko mugan bukatzen da.

Jazetaniarren lurretan izan ziren Sertorio eta Ponpeioren gerrak eta geroago Sexto Ponpeioren semeak Zesarren eskuordeekin izan zituenak ere. Jazetania pasatu eta ipar aldera Baskoien tribua dago, non Ponpelo izeneko hiria dagoen, esan nahi baita Ponpeiopolis.”

Estrabon, *Geografia*, IV, 1, 1:

Akitaniarrak erabat bestelakoak dira, bai hizkuntzaz eta bai gopuzkeraz, eta antza gehiago dute iberoeekin Galoekin baino.

¹ Gogoratu Estrabonek uste zuela Ebro ibaia eta Pirinio mendiak Iparretik hegora zihoazela. Horrela ulertzen dira esplikazio hauek.

Estrabon, *Geografia*, IV, 2, 1:

Akitaniarrak galatak ez bezalakoak dira, bai gorpuzkeraz eta bai hizkuntzaz, eta antza gehiago dute iberiarrekin. Garona ibaia dute goiko muga eta ibai horretatik Pirinioetara bitartean bizi dira. Hogei baino gehiago herri akitaniar daude, gehienak Ozeano bazterrean.

Julio Cesar, *De bello Gallico*, I, 1, 7:

Akitania Garona ibaitik Pirinoetaraino eta Hispania aldeko itsasoraino hedatzen da. Mendebaldera eta iparraldera begira dago.

Julio Cesar, *De bello Gallico*, I, 1, 2:

Galia osotara hiru zatitan banatua dago. Parte horietako bat belgek, beste bat akitaniarrek, eta hirugarrena beren hizkuntzan zelta eta gurean galo deritzen herriek okupatzen dute. Garona ibaia bereizten ditu galoak akitaniarregandik, eta Matrona eta Sequana ibaiek belgengandik.

Plinio, *Naturalis Historia*, III, 3, 24:

Caesaraugusta, kolonia zergaz salbuetsia, Ebro ibaiaren bazterrean, lehenago Salduie izeneko gotorleku bat zegoen tokian, Sedetanoen eskualdean. 55 herri hartzen ditu; Horietatik hauek dira Erromako herritar: celsatarrak, bestorduz kolonia zirenak; calagurritarrak, izengoitiz «nasicoak», ilerdarrak, surdaonen herrikoak, zeinen ondotik pasatzen baita Sicoris ibaia; Oscatarrak, Suessetania eskualdekoak eta turiasotarrak. Zuzenbide latinokoak dira, berriz, cascantearrak, ergavicarrak, graccurritarrak, leonicarrak eta osicerdarrak; federatuak dira tarracoarrak eta estipendiarioak dira arcobrigarrak, andeloarrak, aracelitarrak, bursaondarrak, calagurritar cincienseak, cortonarrak, ispallitarrak, ilursoarrak, iluberitarrak, jacetanoak, libiarrak, pompelotarrak eta segiarak.

Tito Livio, *Periocha*, fragmento XCI:

Gauza horiek gogoan zeuzkala, Sertoriok inori kalte egin gabe eraman zuen bere armada lur bake-tuetan barrena, Ebro ibaiaz bestaldetik. Bursaondarren, cascantumdarren eta graccurritarren lurretara joan eta haren uztak erre eta deboilatu ondoren, Calagurris Nasicara joan zen, bere hiri aliatua baitzen; Hiriaren ondoko ibai bat pasatu eta hantxe ezarri zuen bere kanpamentua. Biharamunean M. Mario kuestorea bidali zuen arevacoen eta Cerindonen eskualdera, han soldaduak ozteratu eta garia ere biltzeko. Ondoren ordena zuen gari hura Contrebia, bestorduz Leucade izena zuen hirira eramateko, gauza baitzen haren kokaera miragarriari esker, Beroien herritik aterata, bere armada nahi zuen edozein tokitara eramateko.